

Santurtziko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzaren osoko bilkurak, 2012ko urriaren 24ean egindako 14/2012 ez-ohiko bilkuran, Santurtziko herri erabilerako lekuetan terrazak jartzea arautzen duen ordenantza behin-betiko onetsi zuen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluetan xedatutakoari eutsiz, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da 15 eguneko epean indarrean sartuz, argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

SANTURTZIN ERABILPEN PUBLIKORAKO GUNEETAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua.—Xedea**

Honako Ordenantza honen xedea erabilera publikorako guneetan terrazak eta haien instalazio osagarriak jartzearen inguruan erregimen tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. artikulua.—Terraza kontzeptua

Terrazatzat hartzen dira erabilpen publikorako guneetan dauden mahai, aulki edo bestelako altzari multzoa eta baita mugitu daitezkeen berorren instalazio osagarriak ere, hala nola, eguzkitakoak, alboetako babesak, argia, berogailuak, eta abar, denak izanik legezko edo legezkoa izateko izapideetan den ostalaritza-establezimendu baten behin-behineko edo behin betiko osagarriak.

3. artikulua.—Ezartzeko eremua

1. Honako Ordenantza hau Santurtziko Udalerriko erabilera publikorako gune guztietan (bide publikoa, gune libreak, berdeguneak, eta abar) ezar daiteke, nola titulartasun publikoetan, hala pribatukoetan. Erabilera publikoko izaera berezko egoerak zein indarrean dagoen planak ezarritakoak baldintzatuko dute.

2. Araudi hau ezingo da ezarri, non-eta aginpidea duen Udal Agintaritzak erabakitako egutegia eta baldintzen arabera ospatzen diren herri-jaietako ekitaldiak direla-eta antolatutako jardueretarako instalazioetan, aurreko artikuluan adierazitako definizioaren baitakoak baldin badira ere.

4. artikulua.—Lizentzia onartzea

Erabilpen publikorako guneetarako aipatu instalazioek «guztietzat» erabilera bereziko kategoria juridikoa dute eta horiek erabiltzeko, aurrez, udalaren lizentzia behar da, zein ordenantza honein ezarritakoaren arabera emango den.

5. artikulua.—Lizentzia jasotzeko baldintzak

1. Lizentziak emandakotzat hartuko dira beti, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrenentzakoaren kalterik gabe; ez dago eskatzerik bere jardueran ari denean onuradunak egindako okerrengatik dagokion erantzukizun zibila edo penala baztertu edo gutxitu dezan, eta titularra ez du salbuesten bestelako baimenak eskuratzeko beharretik, horrela dagokionean.

2. Lizentziaren dokumentuan finkatuko dira instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak, hartuko duen azalera, baimenaren indarraldiko epea, eta beharrezkotzat hartzen diren gainontzeko berezitasunak.

3. Lizentziak beti jabetzarik gabeko izaera izango du eta Udal Agintaritzak arrazoituta agindu ahal izango du baimena jasotako partikularrak bere instalazioak bide publikotik erretiratzea, trafikoa, lan, hiritartze edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrengatik hori egitea komeni denean, eta guztia inongo kalte-ordainik izateko eskubiderik gabe.

Ayuntamiento de Santurtzi

ANUNCIO

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria 14/2012, celebrada el día 24 de octubre de 2012, aprobó definitivamente la Ordenanza Reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público de Santurtzi.

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 70.2 y 65.2 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases del Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro en el «Boletín Oficial de Bizkaia» entrando en vigor a los 15 días, contados desde el día siguiente a su publicación.

ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO DE SANTURTZI

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1.—Objeto**

Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación, en espacios de uso público, de terrazas e instalaciones complementarias de éstas.

Artículo 2.—Concepto de terraza

Se entiende por terraza el conjunto de mesas, sillas u otro mobiliario, y de sus instalaciones auxiliares, móviles, tales como sombrillas, protecciones laterales, alumbrado, dotaciones de calor, etc., ubicadas en espacios de uso público, que sirven de complemento temporal o continuo a un establecimiento legalizado o en trámite de legalización de hostelería.

Artículo 3.—Ámbito de aplicación

1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público sean de propiedad pública o privada situados en el término municipal de Santurtzi. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

2. Esta normativa no será aplicable a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo anterior, se trate de actividades temporales ejercidas con motivo de celebraciones ocasionales y de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la Autoridad Municipal competente.

Artículo 4.—Sometimiento a licencia

Las citadas instalaciones en espacios de uso público, tiene la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia municipal previa que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.

Artículo 5.—Condiciones de la licencia

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, periodo de vigencia de la autorización, y demás particularidades que se estimen necesarias.

3. La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias del tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

4. Terrazaren instalazioaren ondorioz bide publikoan eragindako kalteak lizentziaren titularrak konpondu beharko ditu.

5. Bide publikoa okupatzeko lizentziak Udalak interes orokorrekin jotzen dituen kultur ekintzak edo bestelakoak garatzearen kaltetan gabe emango dira.

6. Terraza batek bide publikoa okupatzeak Santurtziko Udalaren iritziz interes orokorrekoa den ekintza bat garatzea oztopatuko balu, terraza jaso egin beharko litzateke aipatu ekintza amaitu arte, lizentziaren jabeak ez lukeela izango inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik.

6. artikulua.—*Denbora eremua edo terrazak ezartzeko aldia*

1. Ostalaritzako terrazak hurrengo denboraldi hauetan baimenduko dira:

- Urteroko denboraldia: Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.
- Denboraldi luzea: Apirilaren 15etik urriaren 15era.
- Udako denboraldia: Ekainaren 1etik irailaren 30era.
- Udako denboraldi laburra: Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.

2. Lizentziak denboraldi ez jarraituetarako ere eskatu ahal izango dira, betiere hil naturalekin lotuta. Baimen hauek urtero eskatuko dira eta eskaera egiten den unean zehaztu beharko da urte natural osoan zehar zein hiletan egongo diren terrazak instalatuta, gutxienez hilabete naturaleko aldiak izan beharko direla.

3. Erabilerak dirauen bitartean ez da denboraldi-aldaketarik onartuko. Eskatzen den aldaketak hurrengo denboraldian baino ez du izango ondorioz.

II. TITULUA

BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATEA

7. artikulua.—*Gehienez jar daitezkeen mahai eta aulki kopurua*

1. Baimendutako mahai eta aulki kopurua jarri ahal izango da, ez gehiago. Establezimendu bakoitzeko, gehienez ere 20 mahai baimenduko dira eta gehienez 4 aulki mahai bakoitzeko.

2. Mahaiak borobilak edo karratuak izango dira eta mahai bakoitzak ezin izango du 1,50 m² baino gehiago okupatu, hurrengo artikuluan honetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Bestelako altzari osagarriak instalatu ahal izango dira, hala nola, kupelak, hautsontziak edo antzeko altzariak betiere baimendutako gunearen barruan badaude eta hasieran aurkeztu zen proiektuan azaltzen badira.

Ez da baimenduko horrelakorik instalatzea dagokion fatxada-
ren ondo-ondoan, eta gorde beharko dira oinezkoentzako ordenantza honetan adierazitako 2 metroak.

8. artikulua.—*Altzariak bete beharreko baldintzak*

Terrazetan instalatu beharreko altzariak hurrengo betebeharrak bete beharko dituzte:

1. *Mahaiak eta aulkiak:* Baimenean adierazi beharko da gehienez instalatu daitezkeen mahaien eta aulkien kopurua eta baita gehienez baimendutako azalera ere, azken hau nagusituz. Mahaiak eta aulkiek zoruaren gehienez 3,00 m²-ko gune bat okupatu ahal izango dute, eta hauxe izango da azalera osoa kalkulatzeko aintzat hartutako datua.

2. *Oin bakarreko mahaitxoak:* Mahai batez eta lau aulkiz osatutako modulu bakoitzaren ordean oin bakarreko mahaitxoak jarri ahal izango dira (mahai altuak + lau aulki altu), horrelakoetan ez direla ez elementu kopurua, ez okupatzeko gehieneko azalera aldatuko. Elementu mota hau ezin izango da jarri %2tik gorako zeharreko aldapa duten espaloietan.

3. *Eguzkitakoak:* Baimenduta egongo dira erdian oina duten eguzkitakoak, eta zabalik ez dute baimendutako azalera baino gehiago okupatuko, gutxienez 2,20 metroko altuera izango dutela.

4. *Berogailuak:* Horien instalazioa lokalen kanpoko aldeko erabilerarako eskumena duten erakundeak homologatuta egon

4. El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía, como consecuencia de la instalación de la terraza.

5. Las licencias de ocupación de la vía se darán sin perjuicio del desarrollo de actividades culturales o de otro tipo consideradas de interés general por el Ayuntamiento.

6. En caso de que la ocupación de la vía pública por una terraza entre en conflicto con el desarrollo de una actividad considerada de interés general por este Ayuntamiento de Santurtzi, la terraza se recogerá hasta la finalización de la citada actividad sin dar derecho al propietario de la licencia a ningún tipo de indemnización.

Artículo 6.—*Ámbito temporal o periodo de funcionamiento de las terrazas*

1. Las terrazas de hostelería se autorizarán por las siguientes temporadas continuas:

- Temporada anual: Del 1 de enero al 31 de diciembre.
- Temporada larga: Del 15 abril al 15 octubre.
- Temporada de verano: Del 1 de junio al 30 de septiembre.
- Temporada corta de verano: Del 1 julio al 31 de agosto.

2. También se podrán solicitar licencias para temporadas discontinuas, que deberán coincidir con meses naturales. Esta autorizaciones se solicitarán anualmente debiendo concretarse en el momento de la solicitud los periodos mensuales de instalación de terraza a lo largo del año natural, como mínimo deberán ser periodos de un mes natural.

3. No se admiten cambios de temporada a lo largo del ejercicio. El cambio que se solicite sólo tendrá efectos para la temporada siguiente.

TÍTULO II

CONDICIONES TÉCNICAS Y DE PUBLICIDAD

Artículo 7.—*Número máximo de mesas y sillas a instalar*

1. Se colocará exclusivamente el número de mesas y sillas autorizado. El número de mesas por establecimiento autorizado será como máximo de 20, que conllevará la autorización para la instalación de cuatro sillas máximo por mesa.

2. Las mesas serán redondas o cuadradas y no podrán exceder de 1,50 m², sin perjuicio de lo dispuesto en el siguiente artículo.

3. Se admitirá la instalación de otro mobiliario complementario, como pueden ser barriles, ceniceros o elementos análogos de mobiliario siempre que se sitúen dentro del espacio autorizado y se incluyan dentro del proyecto inicial.

No se autorizará la instalación de estos elementos en la zona inmediata a la fachada correspondiente, respetándose los 2 metros de itinerario peatonal establecidos en esta ordenanza.

Artículo 8.—*Condiciones del mobiliario*

El mobiliario a instalar en las terrazas se someterá a las siguientes condiciones:

1. *Mesas y sillas:* En la autorización se señalará el número máximo de mesas y sillas a instalar y la superficie máxima autorizada, prevaleciendo esta última. Las dimensiones de ocupación en planta de las mesas y sillas serán, como máximo, cada conjunto de una mesa y cuatro sillas, un espacio de 3,00 m², siendo este dato indicativo para el cálculo de la superficie total.

2. *Veladores:* Cada uno de los módulos compuestos por una mesa y cuatro sillas podrá ser sustituidos por veladores (mesas altas + 4 taburetes), sin variar el número de elementos ni la superficie máxima de ocupación. Este tipo de elementos no se autorizará en aceras con una pendiente transversal superior al 2%.

3. *Sombrillas:* Se permite la instalación de sombrillas con pie central, que abiertas no ocuparán una superficie mayor de la autorizada, debiendo tener una altura mínima de 2,20 m.

4. *Estufas o calentadores:* Su instalación deberá estar homologada por el organismo competente para su uso en el exte-

beharko dira. Ezin izango dira zoruan ainguratu. Zoruan izango duten okupazioa ezin izango da 0,60 metrotik gorakoa izan. Ahal dela, terrazaren alboetako muturretan jarriko dira, eta euren kokapenak ez du oinezkoen bidea eragotziko.

5. *Kupelak*: 1,5 metro karratu okupatuko dute, eta datu hau hartuko da aintzat azalera osoa kalkulatzeko.

6. *Hautsontziak*: Euren egonkortasun bermatuko duen diseinua izango dute, zorura ainguratu gabe zaborra eta zigarrokinak zabaldu ez daitezen. Gehienez berogailuetarako ezartzen diren neurria izango dute. Aintzat hartuko da plantan duten benetako okupazioa azalera osoaren kalkulua egiteko.

Irisgarritasunari buruzko araudia bete beharko dute eta bermatu beharko dute, besteak beste, proiektio bertikal erregular bat altuera eta inguru osoan.

9. artikulua.—*Altzarien diseinua*

1. Hiri-altzariek nolabaiteko harmonia eta estetika ematearren, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) *Materialak*: Hurrengo material hauetakoak izan beharko dute: egurra, aluminioa, altzairu herdoilgaitza, forja edo bestela bini-loa, banbua, zumea eta abar. Mahai eta aulkien egitura ezin izango da plastikozkoa izan, egurra edo forjaren imitazio ona izan ezean, eta ezin izango du establezimenduaren izena ez den beste publizitate komertzial edo babeslerik izan.

b) *Koloreak*: Tonu neutroak erabili beharko dira (zuria, krema, metalizatu...) edo ilunak (morea, bourdeos, granatea, berde iluna, beltza edo urdin iluna), eta ezin izango dira kolore deigarriak edota biziak erabili.

2. Eguzkitakoek diseinu zehatza izango dute kolore kromatikotik bateratuaz, inolaz ere biziak edo deigarriak, inguruarekin oreka gorde beharko dutelarik, udalaren irizpideari jarraituz.

3. Bai eskaera berrietan, bai aldaketa eskatzen dutenetan adierazi beharko dira jarriko diren altzarien ezaugarriak, eta honek udal teknikari oniritzia izan beharko dute. Horrez gain aulki, mahai eta erabili nahi diren bestelako elementu osagarrien argazkiak eraman beharko dira. Asmo horrekin entregatu beharko da terrazaren banaketaren planoak.

4. Eguzkitakoek diseinudun oina izango dute, eta debekatuta egongo dira hormigoizko oinarriak.

5. Elementu higigarriak babesa izango dute, higitzen direnean zarata atera ez dezaten.

6. Altzariek egoera egokian egon beharko dute beti.

7. Edonola ere, Udala izango da jartzen diren altzariei oniritzia emango diena, eta gorde beharko dituzte diseinu homogeneoko irizpideak.

10. artikulua.—*Alboetako babesak*

1. Instalazioak hartzen duen azalera mugatu edo zedarritu egingo dute esparruan inguratzen duten alboetako babesek. Horien bidez ikusmen-urritasuna duten pertsonen oztupoak antzeman ahal izango dituzte, uneoro indarreko irisgarritasun-araudia bete. Hori guztia gunearen ezaugarriak direla eta, desgoki irizten ez baldin bazaio.

2. Alboetako babes horiek mugikorak izango dira eta edonola ere, desmuntagarriak, opakoak edo gardenak, baina beti inguruko baldintzetara egokituak. Oniritzia horretarako eskumena duen Udal teknikariak emango dio.

3. Babesak ezingo dira dagokien instalazioetarako baimendutakoa baino zabalagoak izan, eta horien altuera 0,75 eta 1,5 metro artekoa izango da.

4. Babes horiek egonkorak eta jarraituak izan beharko dute, ertz zorrotzik gabekoak eta ez autoirristakorak. Horrez gain, ez iraultzeko erresistentzia izan beharko dute.

rrior de locales. No deberán anclarse al pavimento. La ocupación o proyección en planta no excederá de 0,60 m de diámetro o de lado. Se situarán preferentemente en los extremos longitudinales de la terraza, de forma que su ubicación no suponga mayor obstáculo para el tránsito peatonal.

5. *Barriles*: Se considerará que ocupan un espacio de 1,5 metros cuadrados, siendo este dato indicativo para el cálculo de la superficie total.

6. *Ceniceros*: Contarán con el diseño adecuado para garantizar su estabilidad sin anclajes al pavimento para evitar la dispersión de desperdicios. Sus dimensiones máximas serán las estipuladas para estufas o calentadores. Se considerará su ocupación real en planta para el cálculo de la superficie total.

Cumplirán la normativa de accesibilidad, garantizando, entre otros aspectos, una proyección vertical regular en toda su altura y contorno.

Artículo 9.—*Diseño del mobiliario*

1. Para dar cierta armonía y estética al mobiliario urbano el mobiliario de las terrazas deberá tener las siguientes características:

a) *Materiales*: Deberá ser de madera, aluminio, acero inoxidable, forja o vinilo, bambú, mimbre, etc. En ningún caso la estructura de mesas y sillas podrá ser de plástico, salvo que sea una buena imitación a madera o forja, y no podrá tener publicidad comercial o de esponsorización, salvo el nombre del establecimiento.

b) *Colores*: Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados), u oscuros (morado, bourdeos, granate, verde oscuro, negro o azul oscuro) sin que puedan utilizarse colores llamativos y/o chillones.

2. Las sombrillas y parasoles, deberán tener un diseño definido con un tratamiento cromático unitario que en ningún caso será llamativo o estridente, debiendo guardar consonancia con el entorno, según criterio municipal.

3. Tanto en las nuevas solicitudes como en las solicitudes de modificación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, el cual deberá recibir el visto bueno de los servicios técnicos municipales, adjuntando fotografía del tipo de silla, mesa..., así como de cuantos otros elementos auxiliares se quiera hacer uso. A estos efectos se entregará plano de distribución de la terraza.

4. Las sombrillas contarán con pie diseñado, quedando prohibidas las bases de hormigón.

5. Los elementos móviles dispondrán de protección que corte la generación de ruido en su manejo.

6. El mobiliario se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

7. En todo caso, será el Ayuntamiento el que dé el visto bueno al tipo de mobiliario que se instale, y deberán respetar criterios de diseño homogéneo.

Artículo 10.—*Protecciones laterales*

1. El área ocupada por la instalación podrá quedar delimitada por protecciones que acoten el recinto y que permitan identificar el obstáculo a las personas con deficiencias visuales, cumpliendo con la normativa de accesibilidad vigente en cada momento. Todo ello, sin perjuicio de que por las características específicas de la zona no se considere adecuado.

2. Estas protecciones laterales serán móviles y, en todo caso, desmontables, opacas o transparentes, pero siempre adecuadas a las condiciones del entorno. Su idoneidad quedará sujeta al visto bueno del técnico municipal competente.

3. No podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente y su altura no será inferior a 0,75 metros ni superior a 1,5 metros.

4. Estas protecciones laterales deberán ser estables y continuas, que no tengan cantos vivos, no autodeslizantes y con resistencia al vuelco.

III. TITULUA INSTALAZIO BALDINTZAK

1. ATALA BALDINTZA OROKORRAK

11. artikulua.—*Muga orokorrak*

1. Ezin izango da terrazarik eta bestelako elementu osagarriak hurrengo hauen aurrean jarri: atari, oinezkoen pasabide, elbarrituentzako aparkaleku-plaza, larrialdietako irteera, autobus geltoki, taxi geltoki, edukiontzi, pasabide eta zamalan guneen aurrean, ezta zirkulazio seinaleak ikustea eragozten duten tokietan ere. Bestetik, ezin izango dituzte estali ur-hartuneak, suteetako ur-hartuneak, estolderiako erregistroak, garraio publikoaren geltokiak, transformazio zentro eta zerbitzu publikoen erregistro-kutxatilak, zerbitzu publikoek horiek bat-batean eta azkar erabiltzeko moduan utziz. Horrez gain, ezin izango dira jarri hirigintza, estetika eta ingurugiroarekin, trafikoarekin eta bide segurtasunarekin lotutako baldintzak direla eta, Udalak ez jartzeko erabakitzen duen tokietan.

2. Ezin izango da inolako elementurik jarri baimendutako guneetik kanpo.

3. Horrez gain, debekatu ahal izango da, behar bezala arrazoiua, terrazak edo oin bakarreko mahaiak jartzea, bide-segurtasun, herri-lan edo herritarren intereseko antzeko arazoak direla eta.

4. Debekatuta dago baimendutako terrazetan edozein iturri akustikoa jartzea (musikala, girotzekoa, eta abar) eta baita zuzeneko musika eta irudi edo soinu ekipoak ere.

5. Debekatuta dago terraza edo establezimenduari zerbitzua ematearren kanpoan barrarik edo bestelako salmahairik jartzea.

6. Ez da baimenduko terrazak galtzadan jartzea, eta ez da terraza jartzeko baimenik emango erabilpen publikorako gunearen eta lokalaren artean ibilgailuak zirkulatzeko galtzada bat baldin badago, oinez guneetan garajeetarako sarbideak izan ezean.

7. Edonola ere, instalazioak 9.2.24 artikuluan obra eta behin-behineko erabilpen lizentziari buruz HAPOn zehaztutakoa bete beharko du, eta baita indarrean dagoen irisgarritasun-araudia ere.

12. artikulua.—*Hiri-altzarien arteko gutxieneko distantzia*

Terrazak eta oin bakarreko mahaiak jartzeko gunean hiri altzarien instalazioak baldin badaude, horietatik izan beharreko gutxieneko hurrengo distantzia hauek ezarriko dira:

a) *Lerrokatutako zuhaiztia*: Gutxienez 0,5 metroko distantzia. Ez da beharrezkoa horretara sarbide zuzena egotea.

b) *Banku eta paperontziak*: Gutxienez 0,5 eta metro baten arteko distantzia inguru osoan, udal teknikariek erabakitzen dutenaren araberakoa, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.

c) *Telefono kabinak*: Elbarrituentzat egokitu gabeko kabineetan gutxienez 0,5 metroko distantzia inguru osoan, eta metro batekoak egokitutakoetan, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.

d) *Iturriak*: Gutxienez 2 metroko distantzia inguru osoan, aurreko aldean sartzeko bidea utziz.

e) *Umeentzako jokoetarako gunea*: Gutxienez 2 metroko distantzia gomazko zoladuraren ertzetik, gutxienez 4 metro zabaleko sarbidea utziz.

2. ATALA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAN JARTZEA

13. artikulua.—*Luzera*

Orokorrean, baimendutako terrazaren luzerak ez du establezimenduaren fatxadaren aurreko aldeko luzera gaindituko, mugakide dituenek idatziz horretarako baimena eman ezean, betiere hamabi (12) metroko luzera gainditu gabe, alboetako babesak barne.

Ostalaritzako terrazaren alboan dagoen lokalaren (edo lokalen) baimena egiaztatzeko, jardueraren titularrak edota lokalaren

TÍTULO III CONDICIONES DE INSTALACIÓN

CAPÍTULO 1 CONDICIONES GENERALES

Artículo 11.—*Limitaciones generales*

1. No podrán colocarse terrazas ni elementos auxiliares frente a portales, pasos de peatones, plazas de aparcamiento de minusválidos, salidas de emergencia, parada de autobuses, en zonas de carga y descarga de taxis, contenedores, vados, zonas de carga y descarga, así como la visibilidad de las señales de circulación, ni ocupando bocas de riego, hidrantes, registros de alcantarillado, paradas de transporte público, centros de transformación y arquetas de registro de los servicios públicos de forma que impida su utilización inmediata por los servicios públicos, ni en cualquier otro espacio que el Ayuntamiento pueda decidir en función de las condiciones urbanísticas, estéticas, medioambientales o relacionadas con el tráfico y la seguridad vial.

2. No se permitirá la instalación de cualquier elemento fuera del ámbito de ocupación autorizado.

3. Podrá asimismo prohibirse, debidamente justificado, la instalación de terrazas y veladores por razones de seguridad viaria, obras públicas u otras circunstancias similares de interés público.

4. Queda prohibido instalar en las terrazas autorizadas todo tipo de fuentes acústicas (musical, ambiental, etc.) así como la música en vivo y reproductores de imagen o sonido.

5. Queda también prohibido la instalación de mostradores u otros elementos para dar servicio a la terraza y/o establecimiento.

6. No se autorizará la instalación de terrazas en la calzada, ni tampoco se concederá autorización de terraza cuando la zona de uso público este separada del local por una calzada de tráfico rodado, excepto sin son accesos a garajes en zonas peatonales.

7. En todo caso la instalación deberá cumplir lo señalado en el artículo 9.2.24 y relacionados del PGOU relativo a las licencias para obras y usos provisionales, así como la normativa de accesibilidad vigente.

Artículo 12.—*Distancias mínimas al mobiliario urbano*

Cuando en la zona de implantación de terrazas y veladores existan instalaciones de mobiliario urbano, se establecerán las siguientes distancias mínimas a los elementos que a continuación se detallan:

a) *Arbolado de alineación*: Distancia libre mínima de 0,5 metros. No es preciso mantener accesibilidad directa al mismo.

b) *Bancos y papeleras*: Distancia libre mínima en todo su entorno de 0,5 a 1 metro, a criterio de los técnicos municipales, dejando acceso libre en todo su frente.

c) *Cabinas de teléfonos*: Distancia libre mínima en todo su entorno de 0,5 metros para las no adaptadas a minusválidos y de 1 m para las adaptadas, dejando acceso libre en todo su frente.

d) *Fuentes*: Distancia libre mínima en todo su entorno de 2 metros. Acceso libre en todo su frente.

e) *Área de juegos infantiles*: Distancia libre mínima de 2 metros respecto del borde del pavimento de goma. Acceso mínimo de 4 metros de anchura.

CAPÍTULO 2 INSTALACIONES EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA

Artículo 13.—*Desarrollo longitudinal*

Con carácter general la longitud de la terraza a autorizar no excederá de la longitud de la fachada del establecimiento, salvo autorización por escrito de los colindantes de este, no pudiendo en ningún caso superar los 12 metros de longitud incluidas su proyecciones laterales.

La acreditación de la autorización del local o locales colindantes con la terraza de hostelería se realizará mediante documento sus-

jabeak sinatutako agiria erakutsi beharko da. Titularrak bere burua identifikatuko du izena eta bi deiturak, izen soziala, NAN edo IFK eta helbidea azalduz.

Horrez gain, baimen esplizitua, berariazkoa eta baldintzarik gabekoa emateko adierazpena jasoko du terraza jarri nahi den denboraaldiaren iraupen osoari dagokiona, eta berariaz agertuko du ezeztazina dela.

14. artikulua.—Okupazioa

1. Bakar-bakarrak emango da terrazak instalatzeko baimena espaloien zabalera gutxienez 3,20 metrokoa denean, aparkatzea debekatuta dagoen espaloietan izan ezik, horietan 3 metrokoa izango da.

Terrazaren elementuen ezaugarriak direla eta, beharrezkoa ez denean espaloien metro bat okupatzea aurreko paragrafoan exijitzen den espaloien gutxiengo zabalera gutxitu ahal izango da, betiere hurrengo puntuan adierazten dena betez.

2. Aurreko artikuluetan aipatutako mugaketa orokorrekin kalterik egin gabe, terrazak okupazio-baldintza hauetan oinarrituko dira:

a) Instalazioak uneoro bermatu beharko du fatxadara bitartean oinezkoentzako gutxienez bi (2) metro zabaleko ibilbide iraunkor bat, oztoporik gabekoa.

b) Oro har, luzetara ezarriko dira espaloien ertzaren ondoan, ertzearino hoge (20) cm-ko tartea utzita gutxienez aparkatuta dauden ibilgailuetako pertsonen sarrera eta irteera ez oztopatzeko. Ez da horrela jokatu, ordea, babesteko hesia baldin bada; hala bada, gutxienez hamar (10) cm-ko tartea utzi beharko baita barneko proiektio bertikaletik hasita.

c) Gutxienez sei (6) metro zabaleko espaloia duten kaleetan, eraikinen fatxaden ondoan gutxienez hiru (3) metro luzeko igarobide iraunkor bat utzi beharko da oinezkoentzat.

d) Oinezkoentzako igarobide librea zabaldu ahal izango da edozein egoeratan, udaleko teknikariak hala erabakita, oinez jende asko ibiltzeak horrela jokatzeko agintzen duenean.

e) Bermatu egingo da etengabeko sarbidea bestelako lokal, atari eta abarretara.

15. artikulua.—Fatxada bi kaletara duten establezimenduak

Establezimenduak bi fatxada duen kasuetan terraza bietako edozeinetan edo bietan jarri ahal izango da, betiere Ordenantza honetan zehaztutakoa betetzen bada eta terraza biek batuta honako araudian ezarritako edukiera baldintzak betetzen badute.

3. ATALA

OINEZ GUNEETAN ETA GUNE LIBRE BEREZETAN JARRITAKO INSTALAZIOAK

16. artikulua.—Oinez guneak

1. Ordenantza ezartzeari begira, oinez gunetzat joko dira ordu-tegi edo denboraaldi jakin batean ibilgailuetarako zati bat edo orri-rik itxita duten kaleak eta hori adierazten duten seinaleak dituztenak, haien egituratze fisikoa gorabehera.

2. Oinez guneak publikoarentzako guneak dira, eta izaera hori nagusituko da beste edozein erabilpenen gainetik.

3. Fatxadaren luzerako garapenari dagokionez, Ordenantza honen 13. artikuluan azaldutakoa bete beharko da.

4. Edonola ere, instalazioak bermatu beharko du oinezkoek bi metro zabaletik gorako oztoporik gabeko igarobidea dutela fatxadatik bananduta.

5. Terrazaren luzerako garapena bidearen ardatzetik doanean eta bertan ostalaritza-establezimendu bat baino gehiago daudenean, hauek banatu beharko dute terrazak ezartzeko zabalera erabilgarria, ez bada baimendu egin dela bidearen alde batean terraza bat ezartzea, eta gerora aurkeztzen dela aurreko fatxadarako okupazio-

crito por quien sea titular de la actividad y/o propietario del local, que se identificará con señalamiento de nombre y dos apellidos o razón social, DNI o CIF, domicilio, e incluirá la manifestación del otorgamiento del permiso explícito, expreso y no condicionado, por toda la duración de la temporada en que pretenda instalarse la terraza, con la manifestación expresa de irrevocabilidad.

Además, en la autorización debe constar declaración suscrita por la persona titular de la actividad en la que señale que dispone de licencia de apertura, actividad o que, en su caso, ha presentado solicitud para obtenerla.

Artículo 14.—Ocupación

1. Solo se autorizará la instalación de terrazas en aceras cuyo ancho mínimo sea de 3,20 metros, salvo que no este permitido aparcar que podrá reducirse a 3 metros.

Cuando por las características de los elementos de la terraza no sea necesario la ocupación de un metro de acera se podrá reducir el ancho mínimo de las aceras que se exige en el párrafo anterior, respetando en todo caso lo dispuesto en el siguiente punto.

2. Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en los artículos anteriores, las terrazas se sujetarán a las siguientes condiciones de ocupación:

a) La instalación deberá garantizar, de forma permanente y en todo caso, un paso peatonal libre de cualquier obstáculo mayor o igual a 2 (dos) metros de anchura respecto a la fachada.

b) Se dispondrán longitudinalmente, junto al borde de la acera, y separados de éste no menos de 20 (veinte) centímetros, al objeto de no entorpecer la entrada y salida de los pasajeros de los vehículos estacionados, salvo que existiera valla de protección, en cuyo caso se separará al menos 10 (diez) centímetros de su proyección vertical interior.

c) En calles de ancho de acera igual o superior a 6 (seis) metros, la instalación deberá dejar un paso peatonal al lado de las fachadas de los edificios como mínimo de 3 (tres) metros de anchura.

d) El paso peatonal libre podrá ser ampliado en ambas situaciones, a juicio del técnico municipal, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

e) Quedará asegurada la accesibilidad permanente a locales, portales, etc.

Artículo 15.—Establecimientos con fachada a dos calles

En los casos en que el establecimiento tenga dos fachadas, podrá instalar terraza en cualquiera de las calles o en ambas, siempre que se cumplan en cada caso las condiciones de esta Ordenanza y que la suma de ambas terrazas cumpla con las condiciones de capacidad fijadas en la presente norma.

CAPÍTULO 3

INSTALACIONES EN ÁREAS PEATONALES Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES.

Artículo 16.—Calles peatonales

1. A los efectos de aplicación de la Ordenanza tendrán la consideración de calles peatonales, aquéllas que se encuentren total o parcialmente, desde el punto de vista horario o temporal, cerradas a la circulación de vehículos, y así se hallen señalizadas, con independencia de su configuración física.

2. En las zonas o calles peatonales predominará su carácter de espacio de encuentro público.

3. En cuanto al desarrollo longitudinal de la fachada se estará a lo dispuesto en el artículo 13 de la presente Ordenanza.

4. En todo caso la instalación deberá garantizar de forma permanente un paso peatonal libre de cualquier obstáculo mayor o igual a dos metros de anchura respecto a la fachada.

5. Cuando el desarrollo longitudinal de la terraza discorra por el eje de la vía y se hallen establecimientos hosteleros enfrentados, se repartirán la anchura útil para la instalación de terrazas, salvo en los casos en los que se haya autorizado una instalación en un lado de la vía, y con posterioridad se presente una solicitud

eskaera bat, ez badituena artikulua honetan zehaztutako gutxiengo baldintzak betetzen.

6. Terrazak eta oin bakarreko mahaia gutxienez zortzi (8) metro zabal diren oinez guneetan baino ezin izango dira jarri, eta euren kokapenak utziko du oztoporik gabeko oinezkoentzako igarobidea eta baita babes zibileko ibilgailuak, anbulantzia, garbiketa zerbitzukoak eta abar pasatzeko tokia ere, horretarako gutxienez hiru (3) metro zabaleko lekua utziz. Bideak gehienez %40-tik beherako okupazioa izango du zabaleran.

Ostalaritza-establezimendu bat baino gehiago daudenean, gutxienez 2 metroko igarobidea utziko da bidearen alde bietako fatxadetatik, eta igarobideetako batek arestian aipatutako 3 metro-etako tokia utzi beharko du halaberharrez.

7. Hamabost (15) metro edo gehiagoko zabalera duten oinez guneetan bermatu egingo da beti egongo dela lau (4) metro-tik gorako zabalera duen oinezkoentzako bidea, oztoporik gabekoa, fatxadaren alde bietan bestela bat egongo da erdian, hiri-altzarien baldintzen arabera. Edonola ere, bermatu beharko dira fatxadatik bi metro libre egongo direla bidearen alde bietan.

17. artikulua.—*Enparantza eta gune libre bereziak*

1. Enparantza edo gune libre bereziak jendea elkartzeko tokiak dira batez ere, horregatik, izaera hori nagusituko da beste edozein erabilpenen gainetik.

2. Gune libre berezizat joko dira beste bide mota batekoak ez diren erabilera publikorako gune guztiak.

3. Gune hauetan terrazak eta oin bakarreko mahaia ezartzeko baimen-eskaerak Udal Administrazioak ebatziko ditu kasu zehatz bakoitzak dituen berezitasunak aintzat hartuta eta hurrengo lerrootan aipatzen diren muga orokor hauei jarraituz:

a) Instalazioak ez du gaindituko etenik gabeko hamabi (12) metroko luzera

b) Oztoporik gabeko oinezkoentzako ibilbide bat bermatuko da, zeinek gutxienez lau (4) metroko zabalera izango duen fatxadaren lerroakadura bakoitzean, bestela, bat egongo da erdian, bertan dauden hiri-altzarien baldintzen arabera.

c) Uneoro egongo da bermatuta lokal, atari eta gainerako toki guztietarako sarbidea

4. Gehienezko muga hori alde batera utzita, proiektuan jasotako instalazioak jarduera nagusia dagoen lokaleko fatxadaren luzera gainditzin badu, eta luzetarako garapena ostalaritzako establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren aldamenean badago, behar bezala egiaztatu beharko da aurrean egongo diren gainontzeko lokaletako titularrak ados daudela 13. artikuluan adierazitako eran.

5. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerak direla eta, (adibidez enparantza eta arkupeetan terrazak ez duen aukerarik ematen bidea modu egokian erabiltzeko, nahiz eta oztoporik gabekoa izan eta fatxadatik 4 metrotik gorako distantzian egon) gertatuko balitz terraza edo oin bakarreko mahaia establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri behar izatea, baimena eman ahal izango litzateke Udalak proposatzen dituen diseinu eta baldintzekin bat etorrira, eta berdin-berdin gorde beharko litzateke oinezkoentzako ibilbideetarako exijitutako zabalera.

6. Gunearen baldintzek hala agintzen dutenean, Udalak baimena emango du betiere aintzat hartuta inguruaren egoera, ikus-tean sortzen duen inpaktua, bertan egoten den jende eta ibilgailu kopurua eta baita garrantzitsu deritzen bestelako egoerak ere, eta saiatu egingo da ahal den neurrian araudi orokorra ezartzen.

IV. TITULUA

BAIMENAK IZAPIDETU ETA EMATEA

18. artikulua.—*Eskaerarako legitimazioa*

1. Terraza jartzeko baimena eskatu ahal izango dute jarduera nagusiko lizentzien titularrek edo zabaltzeko lizentzien eskatzaileek.

de ocupación para la fachada de enfrente y no cumpla con las condiciones mínimas exigidas en este artículo.

6. Sólo se admitirán terrazas y veladores en una calle peatonal de ocho (8) metros de ancho mínimo, y estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos y permitan el paso de vehículos de protección civil, ambulancia, limpieza, etc., con una anchura mínima de tres (3) metros. La ocupación máxima del ancho de vía no superará el 40% de la misma.

En caso de establecimientos hosteleros enfrentados se dejará libre un paso, como mínimo, de 2 metros desde la fachada en ambos lados de la vía, coincidiendo uno de los pasos con la exigencia general de los 3 metros exigidos anteriormente.

7. En las calles peatonales de anchura igual o superior a quince (15) metros se garantizará un itinerario peatonal permanente, libre de cualquier obstáculo, con ancho no inferior a cuatro (4) metros, en cada alineación de fachada y/o uno central, según las condiciones del mobiliario urbano. En todo caso se deberán garantizar los dos metros libres desde la fachada en ambos lados de la vía.

Artículo 17.—*Plazas y espacios libres singulares*

1. En las plazas o espacios libres singulares predominará su carácter de espacio de encuentro público.

2. Se considerarán espacios libres singulares todos los espacios en vías de uso público que no se puedan incluir en ningún otro tipo de vía.

3. Las solicitudes de autorización para la instalación de terrazas y veladores en estos espacios, se resolverán por la Administración Municipal según las peculiaridades de cada caso concreto, y con arreglo a las siguientes limitaciones generales:

a) La instalación en ningún caso podrá rebasar los doce (12) metros de longitud ininterrumpida;

b) Se garantizará un itinerario peatonal permanente libre de obstáculos, con anchura mínima de cuatro (4) metros en cada alineación de fachada, y/o uno central según las condiciones del mobiliario urbano existente; y

c) Quedará asegurada la accesibilidad permanente a locales, portales etc.

4. Si, al margen de este tope máximo, la instalación proyectada rebasa la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, se deberá acreditar, cuando su desarrollo longitudinal tenga lugar junto a la fachada del edificio donde radique el establecimiento de hostelería, la conformidad de las personas titulares de los locales a los que pretenda dar frente de igual manera a la señalada en el artículo 13.

5. Si, por circunstancias excepcionales debidamente argumentadas, como por ejemplo en el caso de las plazas y soportales cuando la colocación de la terraza respetando un itinerario peatonal libre de obstáculos 4 metros respecto a la fachada no permitan su normal uso y disfrute, fuera conveniente la ubicación de la terraza o velador junto a la fachada del establecimiento, se podrá autorizar de acuerdo con el diseño y condiciones que propóngale Ayuntamiento, respetándose igualmente la anchura de los itinerarios peatonales exigidos.

6. Cuando las condiciones de la zona lo requieran el Ayuntamiento concederá la autorización atendiendo a las circunstancias del entorno, impacto visual, flujos de personas y vehículos, así como a otras que se estimen pertinentes, procurando aplicar en lo posible la normativa general.

TÍTULO IV

TRAMITACIÓN Y CONCESIÓN DE LAS AUTORIZACIONES

Artículo 18.—*Legitimación para la solicitud*

1. Podrán solicitar autorización para instalación de terraza los/as titulares de la licencia de la actividad principal, o los/las solicitantes de licencia de apertura.

2. Titularra izango da beti terraza ezartzeko baimenak dakartzan betebeharrak guztien erantzulea, eta pertsona juridikoa izatekotan, ordezkarik gisa azaltzen dena.

3. Baimenaren titularrak edonoz egiaztatu beharko du dagoen babes zibileko aseguruak duela, udalak hala eskatuz gero. Aseguruak egingo da jarduerak izan dezakeen arriskuagatik, eta bermatuko du terraza edo bertako altzarien funtzionamenduak sortutako balizko kalteen ordaina.

19. artikulua.—Baimen-eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Interesdunak baimenaren eskaera egokia aurkeztu beharko du Udaletxeko Erregistro Nagusian, eredu ofizialari jarraituz egina, non hurrengo datu hauek adieraziko diren:

a) Eskatzailearen izen-abizenak edo arrazoi soziala, edo bere izenean diharduen pertsonarena eta jakinarazpenak helarazteko tokia.

b) Eskatzailearen beste datu batzuk: helbidea, telefono-zenbakia eta NAN.

c) Jarduera nagusiaren izena eta kokalekua.

d) Instalazioa jartzeko nahi den epea.

e) Lokal nagusiari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zer-garen zenbaki finkoa.

f) Bankuko kontu zenbaki bat.

2. Eskaerarekin batera, hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Jarduera nagusia gauzatzeko baimena duela adierazten duen adierazpena (zabaltzeko lizentzia edo titulartasuna aldatu dela adierazten duen lizentzia)

Eskatzaileak lizentziarik ez badu aurkeztu beharko du lizentzia eskatu den herriko Udaletxeko Erregistro Nagusian erregistratutako instantzia.

b) Lokalaren kokapenaren planoak, non zehaztuko diren instalazioak okupatuko duen azalera, fatxadaren luzera eta dauden igarobideen zabalera. Horrez gain, adierazi beharko da edozein oztopo finko (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, bankuak, hiri-altzariak, eta abar) eta udal zerbitzuetan izan dezakeen eragina (ura, saneamendua, gasa, eta abar).

c) Plano zehatza (1:50 eskalan), non jasoko den instalazioa ezarriko den bide publikoaren tartea, bertan zehaztuz mahai eta aulkien kopuru zehatza eta berorien banaketa, alboetako babesak, landare-ontziak, eguzkitakoak, eta abar (plantan nola proiektatzen diren adieraziz).

3. Segurtasun eta apaingarritasun arrazoiengatik eta lehenago udal teknikariak hala irizita, beharrezkotzat jotzen bada, artikuluko honetan aipatzen den proiektua eskumendun teknikariaren sinadurak bermatuta egon beharko da.

4. 13. artikuluan ezarritako kasuan, eskaerarekin batera ondoko establezimenduetako jabeen baimena duela egiaztatu beharko da.

20. artikulua.—Eskaerak aurkezteko epea

1. Eskabideak aurreko ekitaldiko azaroaren 1etik 30era bitartean egin beharko dira. Ez da horrela jokatzeko terrazen denboraldia urtebetetik beherakoa denean, kasu horretan eskabideak hilabete lehenago egin beharko baitira gutxienez, denboraldi horren hasierako eguna aintzat hartuta. Eskabidea egiteko finkatuta dauden epeak bete gabe egiten diren eskabideak iraupen laburrago denboraldirako terrazen baimen-eskabide gisa izapidetuko dira.

2. Etena duten aldietarako eskaerak ere aurkeztu beharko dira azaroaren 1etik 30erako tarte horretan eta terraza jartzeko aldia adierazi beharko dute honako araudiaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

3. Aurreko ataletan ezarritako epeetatik kanpo egindako eskaerak hurrengo kasu hauetan baino ez dira izapidetuko:

2. La persona responsable de cuantas obligaciones implique la autorización para instalación de terraza será siempre su titular, y en caso de persona jurídica, quien conste como representante.

3. La persona titular de la autorización deberá acreditar en cualquier momento, a requerimiento municipal, estar en posesión del correspondiente seguro de responsabilidad civil por los riesgos de la actividad que cubra los posibles daños ocasionados por el funcionamiento de la terraza o su mobiliario.

Artículo 19.—Solicitud de autorización y documentación adjunta

1. La persona interesada deberá presentar en el Registro General del Ayuntamiento la correspondiente solicitud de autorización según modelo tipo oficial, en la que se hará constar los siguientes datos:

a) Nombre y apellidos o razón social de la persona solicitante, o de la persona que, en su caso, las represente, y el lugar que señale a efectos de notificaciones.

b) Otros datos personales del solicitante relativos a domicilio, teléfono y DNI.

c) Nombre y emplazamiento de la actividad principal.

d) Plazo de instalación.

e) El número fijo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles correspondiente al local principal.

f) Número de cuenta bancaria.

2. Junto a la solicitud deberán presentar la siguiente documentación:

a) Declaración relativa a que dispone de autorización municipal para el ejercicio de la actividad principal (licencia de apertura o licencia de cambio de titularidad).

Cuando no se tenga la licencia se deberá presentar fotocopia de la instancia registrada en el Registro General del Ayuntamiento donde se haya solicitado la licencia.

b) Plano de emplazamiento del local, con detalle de la superficie a ocupar por la instalación, e indicación de la longitud de la fachada y del ancho de los pasos libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier obstáculo fijo (señales de tráfico, árboles, bancos, mobiliario urbano, etc.), y de posibles afecciones a servicios municipales (agua, saneamiento, gas, etc.).

c) Plano de detalle (a escala 1:50), en el que se recoja el tramo de vía pública afectado por la instalación, con detalle de la distribución y número exacto de mesas y sillas, protecciones laterales, jardineras, parasoles, etc. (señalando su proyección en planta).

3. Cuando por razones de seguridad y ornato, y previo juicio municipal razonado, se estime necesario, se exigirá que los planos, a los que se refiere este artículo, venga avalado por la firma de técnico competente.

4. En el supuesto previsto en el artículo 13, la solicitud deberá venir acompañada además de acreditación documental de la autorización de los establecimientos colindantes.

Artículo 20.—Plazo de presentación de solicitudes

1. Las solicitudes se realizarán en general dentro del periodo comprendido entre el 1 al 30 de noviembre del ejercicio anterior, salvo cuando se refieran a temporadas de terraza de duración inferior al año, en cuyo caso deberán realizarse con una antelación mínima de un mes con respecto a la fecha de inicio de la respectiva temporada. Las solicitudes que se cursen sin respetar los plazos de solicitud establecidos se tramitarán como solicitudes de autorización de terrazas de la temporada de duración inmediata inferior.

2. Las solicitudes para periodos discontinuos deberán presentarse también dentro del periodo comprendido entre el 1 al 30 de noviembre y deberán indicar el periodo de instalación de la terraza de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de la presente norma.

3. Las solicitudes que se realicen fuera de los plazos establecidos en los apartados anteriores no se admitirán a trámite, salvo en los siguientes casos:

a) Baimendu litezkeen ostalaritza-establezimendu berriak.
b) Establezimenduak zeinen zabaltzeko lizentziaren titularra aldatu den.

c) Hurrengo hau aipatzen duten eskaerak: okupazioa arautzea berorren titularrak egoera legeztatzeak interesa duela eta egiaztatzen duela eskaerarekin batera eta ezin gezurtatu daitezkeen frogen bidez ordaindu egin duela baimenik gabe egindako jabego publikoaren okupazioagatik jasotako isuna.

d) Gune publikoaren konfigurazioa aldatzen denean, eta honek terraza jartzea ahalbidetzen duenean.

Kasu hauetan eskaera edonoz egin ahal izango da eta berau hilabeteko epean ebatziko da. Edonola ere, eskaera hauek 6. artikuluan ezartzen diren terraza-denboraldietako baten bati buruzkoa izan beharko dira.

4. Baimendutako terraza duten ostalaritza-establezimenduek honako artikulua lehenengo paragrafoan adierazitako deialdi edo epe orokorra erabiliko dute berorren instalazio aldia edo konfigurazio fisikoa aldatzea proposatzeko.

21. artikulua.—*Baimena ematea*

